

Bizkaiko Aizkora Txapelketea be irabazi dau Atutzak

10. orrialdea

Anje Duhalde Igorren hilaren 9an

Urtailearen 9an, arrastiko zortziretan, Anje Duhalde kantaria Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan egongo da kontzertua eskeintzen. Berrogei urte baino gehiago daroaz oholntza gainean kantariak, taldean zein bakarka, eta bere errepertorio ugariaren parte diran kantuak jo eta kantauko ditu zuzenean. Sarrerak 8 eurotan dagoz salgai, 6 eurotan daukiez bazkideak ostera. **13. orrialdea**



Alex Txikonek K2a igoteko prest eukan espedizinoa bertan behera

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

221

2015eko urtailearen 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratia garatuteko jardunaldiak: urtailean beste saio bi

Abenduan Tolosako alkatea, Ibai Iriarte; Joseba Garmendia, Sakantzen Sareako kidea eta Francisco Albuquerque Tokiko Garapenean mundu mailan aditua egon ziran Arratia garatuteko jardunaldietan.

Urtailean beste saio bi egingo dira, Ainara Basurko, Azaroa Fundazioko zuzendariak, Lea Artibaiko esperientzia aurkeztuko dau hilaren 15ean, eta jardunaldien atzen egunean, plan bat diseinetako asmoagaz, Arratiari begirako hausnarketea egingo da Elhuyarrek gidatutako partehartzearen bitartez. Jardunaldiak Dima, Igorre eta Lemoako Udalak antolatu dabez Arratian langabeziak gora egin dualako eta egoera horren bueltea emoteko plangintza eraginkor bat disenau gura dabelako. Horretarako eskualdearen berezitasunak eta jentearen parte hartzea bermatuten daben esperientziak ekarri dabez Igorreko Kultur Etxera.

Abenduaren 17an, Francisco Albuquerque Nazino Batuetako Garapenerako Programeagaz (PNUD) alkarlanean behar egiten dauan Toki Ekonomia Garapenerako nazinoarteko aholkularia egon zan Igorren. Bertan, Tokiko Garapen Iraukorraren nondik norakoak emon ebazan adituak. "Erreforma programa bat dago indarrean eta finanza testuinguru horretan industriak lekuz aldatu edo zarratu egiten dira. Hori dala eta, tokiko ekonomiak ez badau garrantzia handiagoa hartzean eta ez badauz bere estrategiak diseinetan, kontrolau ezin dituan aldagaien menpe egongo da" esan eutsan Albuquerquek BEGITURI. **6. eta 7. orrialdeak**



Jardunaldietako parte hartzaileak taldeka beharrean.

Argazkia: Imanol Garcia.

IGORRE

Gazte Programea diseinuko dabe bertako gazteak

Urtailean hasiko dira gazteak Gazte Plan integral bat osotuen. Dana dala, ez dira hutsetik hasiko, 2014an, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak euren preminak jasoten dauan aurreproiektua egin eben. Orain 18 eta 30 urte bitartekoan txandea izango da. Igorreko Udala Zaztaparrak-egaz ipini zan kontaktuan igaz Gazteria Plan bat egiteko eta apriletik udara arte, gazteenakaz egin dabe behar Zaztaparrak taldekoak diagnostikoa egiten eta gazteenai baliabideak emoten eura euren proiektua diseinetako. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

Urte hasikeran ondo pasetako aukera ugari gurean

Gabon sasoiak urtaileko lehenengo egunak be hartzean ditu eta Arratian badago zer egin ondo pasetako urte hasikeran. Kabalgatak dira akaso ikusgarrienak, baina Gabonetako Umeen Parkeak, kontzertuak, zinea eta beste ekitaldi ludiko eta kultural askotan parte hartzeako aukerea dago. **5. orrialdea**

E.P.A.
30. URTEURRENA
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, urtalia osoa.
Tfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

IGORRE

Bigarren pediatrea eskatzeko konzentrazioa Igorren

Igorreko Osasun Zentroko pediatreak lan karga handiegia daukala eta, Pediatria Zerbitzuko erabiltzaileak zentro aurrean batu ziran abenduaren 30ean, lanaldi osoko beste pediatra bat eskatzeko. 200 lagunetik gora batu ziran konzentrazioan. Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuriko umeak artatzen ditu Igorreko pediatreak, mila hirurehunik gora. **5. orrialdea**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

BEREZIARTUA ANAIK, ARRATIAKO LEHEN ARGAZKILARI PROFESIONALAK (II)

Estudiorik izan ez arren, Bediako baserrian eukan laborategiaz baliatuz, apurka-apurka bere kontura behar egiten hasi zuen lñaki, eta 1957an anaiarengandik independizatu egin zuen.

Orainoagaz konparatuz, orduko lan egiteko era oso desbardina zuen, erretratu gehienak eztegu eta bateoetan egiten ziran; inork ez eutsan deitzen argazkilariari; erretratista ezteguen bat egoala enteretan zanean bertaratu egiten ziran, ondoren senar-emazte eta konbiduak egindako argazkiak eskeinitzen. Geroago, agur afariak, lagunen

arteko bazkariak eta "guatekeak" ugaritu ziran eta han azaltzen ziran erretratatik. Zadorrako obrak zirala eta, 3.000 bat behargin bizi ziran barrakoietan Zeanuriko Undurraga auzoan eta urte oparoak izan ziran hareek Bereziartuarrenzat; ia danak kanpoztarrak ziran eta euren argazkiak familietara bialdu gura ebezanez, pila bat erretratu egiten eutseezan. Domekero joaten ziran Zeanurira.

"Foto Beri" Igorren

Urteak aurrera joan ahala, eta bereziki hirurogeiko hamarkadatik



Zornotzan argazki dendea zabaldu ebanekoa: Bixente Bereziartua "Fotografias Bereziartua".

aurrerantza, kompetentzia gehiagotuz joan zuen eta lñakik Igorreko Garbe auzoan egoan estudioa erosi eutsan Muñoz argazkilariari, "Foto Beri" zabaltzeko; 1998ko urri lehenengoan jubiletako ordua heldu jakon arte bertan egon zuen. Bixentek, ordea, hamabosten bat urte lehenago itxi eban Zornotzako "Fotografias Bereziartua".

Arratiako eta Zornotzako zein etxetan ez da egongo Bereziartuarren argazkiren bat?

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 29tik urtailaren 4ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 5tik 11ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketeta: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Pintura poteak nora? Zeure Berbea

Lehengo egunean, askok urtero egiten dogun moduan, etxeko so-toan garbiketara toketan zan. Trasto ugari bota, beste batzuk ordenau... Garbigunera joan eta... pintura poteak ezetz, ezin doguzala bertan itxi, Basaurira eroan behar doguzala.

Eusko Jauriaritzak, Diputazioak, Mankomunidadeak... errezikletako hainbeste kanpaina egin eta gero, herriarrok ez daukagu nora eroan pintura poteak, fluoresenteak, eta abar.

Konponbidea? Mankomunidadean nire kejea egin eta gero... agian, Garbigunean hartzean ez dabezan produktu honeek gure udaletxeen atean itxi ezker, konturatuko dira arazoaren garrantziaz. Atzenengo biak kontenedore berdera bota nebazan (errekara ez botatearren). Baina gehiagotan, ez!

JUAN TOTORIKA

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lupu



Lupu (lupúe, agoskatuta) berbearen esangura gehienak ez dira zentzu onekoak, ikusiko dozunez, irakurle: 1) azalean urteten dauan garau kaltegarria; 2) argazkiko insektu pozoitsua; 3) bereno hilgarria daukan aramua edo arañea; 4) bereno berari be lupu esaten jako (hortik dator "lupua baino gaziago" Arratian entzuten dan lokuzinoa, jatekoa pozoia baino txarragoa edo sano gazi dagoala adierazoteko). Kaleko berbetean zabaldu egin da zentzu iraingarria daukan lupuaren beste esangura hau: persona doilorra edo okerra.

ERETXIA

Gazteak 2015 urtearen hasieran



MIKEL GARCIA

Lemoako Gazte Teknikaria

Urte barria dator eta gazteentzako alde batetik zaharrak barri izango dirala uste dot. Hainbat urte daroaguz gure beharrianak asetur, baina egia da gaur egungo egoera honeguz ezin izango doguzala aurrera eroan gero eta handiagoak diran hormak ipinten dabizalako. Bizi baldintzak onera joan ez, eta denporea pasau ahala kontrako jarkerea hartu dau atzeneko urteetan, eta gazte izatea egunetik egunera gaxtagoa bihurtu da. 2014. urteari begirada bat emonda eta urte amaierako diagnostiko txiki bat eginda, ikustekoa da burukominik handiena enplegu eta etxebizitzan dagoala.

Lehenengoa gero eta txarrago ikusten dogu, hainbat urte ikasten eta bizitza profesionala prestatzen pasau eta gero, egoerak beherantza egin dau, baldintza okerragoak eta lege barriak egiten daben minagaz. Arratian egoera honek gero eta gehiago arduratuten dau, krisia hasi zan momentutik hainbat dira enpresak zarratzeko ahaleginak eta hori gitxi ez, eta gainera ahalmen handiko enpresetan beharginak kaleratzeko mobimentu asko ikusi izan dira. Etxebizitzaren arazoari begiratuta be ikustea baino ez dago etxetik urten guran dabizanak, baina egoerak etxean egotera behartuten dauzan gazteak. Norberaren diru sarrerak baju, alokairuen prezioa soldateagaz ordaindu ezinekora eta etxeen prezioa atzen urteetako espekulazioaren menpean. Kontu honetan Arratiko gazteak be ez dira atzean geldituten, ehundaka etxe hutsik eta sartu ezinik dabizalako.

Gure inguruan barneratuta, poztutekoak izan dira gazteak euren nahiak eta baldintzak hobetuteko emondako aurrera pausak eta hori ikustekoa izan da egindako ekintza, mobilizazio eta programetan. Aitatutekoa da

Lemoako Karabie Gaztetxeak 15 urte bete dauzala eta inguruetakoz gazte eta heldu askorentzako eredu dala, ikusi besterik ez dago urtegunean afarira hurreratutako adin desbardinatutako jentea. Bestalde Igorreko Kiñu Gaztetxeak hasitako bidea be poztetokoa da eta urteak eta esperientzia medio gazte askoren eredu izatea ez litzateke txarto egongo.

2015eko bidea gogorra izango dan arren, bidea egitea eta zabalduetea garrantzitsua da. Apurka-apurka gazteak egoera sozialari aurre egiteko hainbat ekintza eta parte hartze programa pisua hartzean dabiz eta bide horri jarraitasuna emoteko gai izanda gizartean beharrezkoa dan garrantzia hartuko dabe. Antolamentuak eta parte hartzeak onura handiak ekarriko dauz eta irudimenaren bitartez gizartea aldatzeko alternatiba barriak sortu ahal dira.

Amaituten joateko, artikulu honen bitartez argi itxi gura dot gazteak herriaren parte garrantzitsua dirala, oraina eta geroa buztartuten daben gizartearen zati garrantzitsu eta aberatsa. Askok lan egitearen alde dagoz eta lan hori aprobetxatu egin beharko litzateke eragile eta instituzinoetan.

LUMATUTEN**SARA GUTIERREZ
EGILIOR****Benitoren
"abesti
nazionalak"**

Gazte gaztetatik disfrutau izan dot Benito Lertxundiren musikeagaz, neurri handi baten, bere abestiak Arteako ikastolan ikasi genduzalako. Abestiak buruz ikasi eta letrakaz, testu azterketea egiten genduan. Garrantzia emoten jakon orduko denporan euskal kulturearen atal honeri. Sasoi haretako gure maisu eta andereñoak ziran Karmelek, M^a Angelesek, Itziarrek, Larrak, Zefek, Rosak eta Mari Terek holan egiten eben.

Gaur egun, nire seme-alabak ez dabez eskolan euskal abesti tradizionalak landuten lehen egiten genduan moduan, eta nire ustez presentzia handiagoa izan beharko leukie kantuok, txikitan ikasitakoa betirako geratzen da eta.

Denporeagaz bihurtu diran "abesti nazionalak" Benitok

esaten dauan moduan, esaterako, Jaun Baruak, Atarratzeko Gaztelua, Herribehera, Zenbat gera... nire ustez abestiak baino gehiago dira, gure herriaren izake-rea eta historia ezer baino hobeto transmitiduten dabe eta.

Lertxundik 16 disko argitaratu ditu. Ez Dok Amairu-gaz hasi eta 45 urte daroaz kantuz herriz herri. Bere musikeak Euskal Herriaren esentzia isladatuten dau eta euskereari mesede handia egin deustso euskalki guztietan, batez be zuberotarrez abestuten daualako.

Benitoren musikea, gozatuteko eta ondo gorde beharreko altorra da, atzen urteotan joan jakuzan beste euskal artistena legez: Laboa, Lete...

Abenduan Benito Lertxundik Durangon emondako kontzertuaren ostean, lagun batzuei esker, bera eta Olatzegaz afaltzeko aukerea eta plazerra izan neban. Hainbeste miresten dozun artista aurrez aurre ezetutea poz handia da, oraindino gehiago hain hurbila eta "normala" sentiduten dozunean. Ezin dot aitatu barik itxi, zein andra jatorra eta zabala dan Olatz.

Aupa Benito! Urte askotarako zure kontzertuetan disfrutetan jarraituko dogu.

Luju bat izan da zuek ezetutea. Eskerrik asko!

ZERTZEAN**ARITZ ZUBIATE**

Indartsuak, argiak, ederrak izan gaitzke. Gure ingurukoa aldatu, mundu bizigarriagoa ehun, asko egin ahal dogu, gauza asko egin ahal doguz. Bankuak sortu, eta lapurtu, eta espropiatu. Basoak erre, eta barriak landatu. Errekak lehortu, eta barriro bizi eman...

Elkar hartuta, helburu argi, determinazio sendo eta lanaz lor dezakegu, kolektiboaren indarra erabiliz norbanakoen ajeak gainditzeko. Ametsak egia bihurtu, jendea ilusionatu. Esperantzari leihoak zabaldu, etsipenaren gainetik gogoz ekin.

Alkar babestu, zaindu, beroa emon, kontu kaltegarriak desikasi eta gozagarriak ikasi, esperimentatuz.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Ahal dogu

Gorputzak deskonkistatu. Ezinbestekoa alferrikako bihurtu, eta alderantziz.

Beldurra uxatu, eta martxan jartzen ez bagara ez dogu egundo jakingo zer gertatuko litzatekeen ahalegindu izan bagina. (Asko egin) ahal dogun arren, ondino ez dakigulako.

BEGI TXINDORRA

Orain 20 bat urte (edo gehiago) egin neutsan alkarrizketa bat Pello Zabala fraide meteorologoari eta edurra zergaitik bihurtu dan albiste preguntau neutsan. Erantzun eustan autoakaitik zala, mundu guztiak erabilten dauala autoa eta kaminoak oztopo barik behar dituala kotxeak.

Urteotan, jarkera hau gehitu egin da, eta albistegietan, askotan no-tiziarik inportanteena izaten da neguan hotz egiten dauala eta udan bero.

Argazki hau beharrerako bidean aterata dago abenduaren 29an. Edur malutarik ez zan ikusten inguruan, Gorbeia bai zuri, baina beste mendiak be edurrik hartu barik egoazan.

Edurra kentzeako 5 makinagaz gurutzatu nintzan oster.

Edurrik ez, baina gatza bai. Edurra ez dogu gurtuko, antza. Izan be, konduziduteko edurra zuria izan arren, baltza da.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosa Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosticl.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Uriagaitza Aldekoa
Oñativilla
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com
Tel.: 94 657 54 50

IGORRE

Igorreko 2015erako aurrekontuak atzera bota dabez EAJ-PNV eta IDren botoak

| ERBITZ. FUNTZ. OPERATIBOARI LOTURIKO INBERTSIOAK | |
|--------------------------------------------------------------------|-----------|
| 04-42 Ikastetxea egokitu eta hornitzeko lanak | 20.000,00 |
| Acondicionamiento y equipamiento instalaciones escolares | |
| 04-45 Kirol instalazioak egokitu eta hornitzeko lanak | 20.000,00 |
| Acondicionamiento y equipamiento instalaciones deportivas | |
| Plan de autoprotección | 12.000,00 |
| 2.05-45 Kultur etxea egokitu eta hornitzeko lanak | |
| Acondicionamiento y equipamiento kultur etxea | |
| Plan de autoprotección | 3.000,00 |
| 13.04-432 Tresnak eta erremintak | 12.000,00 |
| Útiles y herramientas | |
| 126.01-121 Zerb. orokorretako instalazioak egokitzeko lanak | 12.000,00 |
| Acondicionamiento y equipamiento instalaciones servicios generales | |
| EL GASTUAK IZAERA INMATERIALEKO INBERTSIOETAN | 15.000,00 |

Abenduaren 22an, urteko atzen osoko bilkuran, 2015 urterako aurrekontuen proposamena aurkeztu zan eta atzera bota eben EAJ-PNV eta IDren botoak.

Erredakzinoa

Udaletik adierazo dabe aurrekontu proposamena atzera bota dan arren, Udalak herritarrak hartutako konpromisoak aurrera eroateko beharrear jarraituko dauala.

Alkatetzeara eta EH Bildu taldearen babesagaz aurkeztutako aurrekontuak aurreko urtekoen jarraipena suposatzen ebela dinoe alkatetzatik, eta 2014ko aurrekontuak EAJ-PNV taldearen bozka jaso ebela. Aurrekontu proposamena 4.456.049 eurokoa da, aurreko urtekoa baina altuxeagoa, Udaltxako sarreraren igotzeak eraginda. Beharginen eroste ahalmenean eragindako galerak konpensez

diru sarrerak igotea aurreikusten zan. "Ezin dogu murrizketen kontra azaldu eta gure esku dagozan ebatziak norabide horretan kokatu" dinoe EH Bildutik.

Proposatutako beste aldaketa bat herritarrak izandako batzarretatik eratorritakoa da eta udalekuen antolaketegaz dauka zerikusia. Gurasoak izandako batzarretan, edade guztiak udalekuen epe osoan batera jardutea eskatu eben eta honetarako diru partidea 79.000 euro arte igo beharra ekarri eban. Sano harreara ona izan dauan gazte programa urte osoan mantendutako jagokon partidea 48.000 euro arte igotea proposatu zan. Aspal-

ditik herrian emoten izan diran Yoga ikastaroak Udalaren "aterkipean" ipinteko kultur ekintzen partidea 18.000 eurotan igotea proposatzen zan. Auzo eta erdigunea hobetuteko beharretarako 110.816 euro: San Kristobalera joateko bidea konponduteko 86.000 euro beharko zirala aurreikusita eta bestea konponketa txikietarako behar izango dalako. Agirre Lehendakaria kaleko lehen fasea (105), errotondea eta Gezalara oinez iristeko tarte 2014ko aurrekontuetako erremamentetik egingo dira.

EAJ-PNVk osoko emendakina

EAJ-PNVk osoko emendakina aurkeztu eban. Honeen proposamenean futbol zelaiaren bedarra aldatzeko 180.000 euroko diru partidea proposatzen zan. Horretarako, auzo eta erdiguneko lanetarako 55.000 euro gitxiago ipini behar ziran. Beharginai KPIa eguneratzeko igoereagaz ez etozan bat EAJ-PNVkoak, ezta udalekuen anpliazinoagaz edota yoga ikastaroai udal babesa emoteko kulturarako diru partidea igoteaz.

Igorre Danontzat be, alkatetza eta EH Bilduren aurrekontuen kontra agertu zan. "Udaletxeko beharginai % 6ko igoerearen kontra gagoz. Uste dogu egoerea latza dala, jente askok galdu dauala beharra eta arlo publikoa ezin dala hortik urrundu. Lekuz kanpo dagoala uste dogu" azaldu eutsan Begituri Iñigo Undurraga IDkoak.

Bestalde, futbol zelaiari bedarra aldatutea lehentasuna dala uste dau IDk. Bertan ume eta heldu asko ibiltzen diralako.

IGORRE



230 lagun inguru batu ziran bigarren pediatria eskatuteko.

Bigarren pediatria eskatzeko konzentrazioa anbulatorioaren aurrean

Erredakzinoa

Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuriko Guraso Alkartek eta gurasoak deituta, konzentrazioa egin eben abenduaren 30ean, gurasoak eta umeak, Igorreko anbulatorioaren aurrean bigarren pediatria eskatuteko. Izan be, Igorreko pediatriaren arabera, mila eta hirurehunetik gora ume atendiduten ditu, noizbehinka egunean hiru ordu egiten dauan beste mediku baten laguntasunagaz. Beste eskualdeetan, barriz, 700-800 ume inguru dagoz pediatria baxoetako. Errefortzurik ez daukan egun baten 67 ume artatu izan dituala lanaldi baten salatu dau medikuak.

Egoera honeri konponbidea bilatutako lanaldi osoko beste mediku bat eskatuten dau Igorreko pediatriak. Erabiltzaileen 482 sinaduragaz batera joan zan martian Osakidetza bialdutako idazkia, baina egoerak konpondu barik jarraituten dau.

"Arazo hau aspaldikoa da. Ume asko dagoz eta pediatrik alde egiten dabe, leku aldatzea eskatuten dabe, ezin dabelako beharra behar dan moduan egin" azaldu deutso BEGITURI guraso batek. umeen atezinoaren kalidadea bermatzeko errefortzua ez dala nahikoa eta lanaldi osoko mediku bat eskatzen dabela inoen konzentrazioa hurreratutakoak.

ARRATIA

Gabonetako ekitaldiak urtailean zehar

Gabonaldia urtailaren 6ra arte luzatzen da eta hainbat dira, urtearen hasieran egiteko eratu diran jarduerak. Batzuk aitatzearen, Erregetako Kabalgata, Bedia, Igorren eta Areatza; Gabonetako Umeen Parkea eta Areatzako Bandaren kontzertua Igorren; Zeinke taldearen kontzertua Lemoako Gaztetxean eta Bittor Kapanagaren ikuskizuna Zeanuriri.

Areatza

Urtailak 2 eta 3, barikua eta zapatua
18:00-21:00, bideoak, mahai-jokoak,

lehiaketak eta abar Gazte Lekuan.

Urtailak 5, astelehena

18:00etan Areatzaganetik urtenda Erregetako Kabalgatea.

Areatza (Laminetxe Gaztetxea)

Urtailak 5, astelehena

22:30ean, kontzertua Makabi taldeagaz (Makaraldea 2.0).

Bedia

Urtailak 5, astelehena

18:00etan, Erregeta Kabalgatea.

Kabalgatearen aurretik txokolata bananduko da.

Dima

Urtailak 5, astelehena

Dimako eleizako korua erresidentzietan.

Igorre

Urtailak 2, barikua

19:00etan, Arratiako Bertso Eskolak antolatuta, *Irudibertsotan: bertso eta marrazki ikuskizuna* Lasarte Aretan.

Urtailak 3, zapatua

19:00etan, Areatzako Banda. Erregetako kontzertua, Lasarte Aretan.

Urtailak 4, domekea

10:00etatik 15:00etara, Igorreko Igeriketa taldeak antolatuta, eski

pistea aterpean.

18:00etan, *Hiru txerriak* umeentzako antzerkia, Lasarte Aretan.

Urtailak 5, astelehena

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

Urtailak 6, martitena

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zazparak edo Motxoganen tailerrak.

Lemoa (Karbie Gaztetxea)

Urtailak 2, barikua

20:00etan, antzezlan *Marxattack*.

Urtailak 3, zapatua

11:00etatik aurrera, truke azokea. 20:00etan, Pintxo Lehiaketa.

Urtailak 4, domekea

20:00etan, dokumentala *Anar-*

kista, atracador, falsificador pero sobre todo... albañil. Lucio.

Urtailak 5, astelehena

22:00etan kontzertuak Zeinke eta Marianitos blai.

Zeanuri

Urtailak 2, barikua

19:30ean, Juan Mari Beltrannen *Euskal Herriko musika eta soinu tresnak* kontzertua Kultur Etxean.

Urtailak 3, zapatua

19:00etan, Bittor Kapanagaren ikuskizuna *Erro eta gara* Juan Martin Elexpuru, Anton Mari Aldekoa eta Gontzal Mendibil-egaz.

Urtailak 4, domekea

17:00etan, zinea nagusientzat *Enemigo a las puertas*. Kultur Etxean.

ARRATIA

Francisco Alburquerque: "beharrezkoa da tokiko enplegu sistema bat"

Francisco Alburquerque Toki Ekonomia Garapenerako nazinoarteko aholkularia da. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktore, Nazino Batuetako Garapenerako Programeagaz (PNUD) alkarlanean, Banco Interamericano de Desarrollo egiten dau behar, Toki Garapen Ekonomikoko Formazio Progamian aholkulari tekniko moduan. Toki Garapena Latinoamerikan sakon ikertu dau, eta Garapen Agentzien Euskal Elkartaren blogean kolaborazioak egiten ditu.

Igorren egon zan abenduaren 17an, Arratia garatutako plan estrategikoa deiseinetako Dima, Igorre eta Lemoako Udalak antolatuta egiten dabizan jardunaldietan.

Erredakzioa

Nazinoarteko Diru Funtzaren (NDF) Egitura Erreformatarako Planak eta holan sortutako kanpo zorrak merkaduetatik kanpo itxi eben Afrika 1970ko hamarkadan; 1980-90 hamarkadetan, Latinoamerikaren txandea izan zan, eta orain Europako hegoaldearena. Historia zein izan dan jakinda, politika-ekonomikoak diseinatzerakoan zergaitik jarraituten da kontuan hartuten erroforma estrukturalako planak, zorra eta finantza kapitalismoa, pobreziarako bidea dala frogatuta dagoanean?

Podere hartu-emonak dira. 1973-79ko petrolioaren krisiaren sasoiaren, eredu produktiboa aldatu zan. Munduko finantzen erantzuna izan zan orduan eta prozesu honen zuzendaritza hartu eban finantza munduak. Honek politika keynesiarra eta estatuaren esku hartzea desagertu arazo eban, eta gaur egun neoliberalismo deitzean doguna nagusitu zan. Hau da, gaur egun merkaduak eragiten dabez erreformak. Ez da politika honeek jarraituten dala, podere burruka bat da eta finantza arloak aspaldi lortu eban agintea.

Gogoratu dozun moduan, Nazinoarteko Diru Funtzaren plateamentu ia bardinakaz, Mundu Bankoa AmerLatinoamerikan eta Europako hegoaldean Banku Zentralak, Europako Batordeak eta troikak, pobrezia, herrialdeen dinamismoa erreku-peretako zailtasunak eta errebolta dakarrez. Errebolta honeen ondorioz, herri babesa daukien erregimenak lortu dabe agintea herrialde batzuetan. Leku askotan erregimen horreei "populista" esaten jakie mespretxuz, baina hor dagoz, neoliberalismoaren kontrako politika ekonomikoak aurre-erroaten.

Hedabide indartsuenak intenzino txarreko bersinoa emoten dabe, ariskua neoliberalismotik kanpo egotean egongo balitz legez. Txina, Japonia eta Asiako herrialdeak ez dabez NDFren eredu jarraitu, beste eredu bat jarraitu dabe eta arlo publikoak eta gizarte antolatutak zeresana daukie hango

ekonomian, eta ez "merkadu" deitutako horreek...

Smith-en esku ikustezinaren interpretazioak bizirik dirauala emoten dau. Horregaitik, kanpotik deigarria da balio ez dabela erakutsi daben errezetak erabilten jarraitutea.

Latinoamerika eta Karibeko Nazino Batuetako Ekonomia Batzordeko Garapen eta Tokiko Kudeaketako zuzendaria izan zara. Antzekotasunik badaukie 1990 hamarkadako Ameriketako eremu honek eta XXI. mendeko bigarren hamarkadako Arratiak?

Antzekotasunak lehen esandakoak dira. Erreforma programa bat dago indarrean eta finantza testuinguru horretan industriak lekuz aldatu edo zarratu egiten dira. Hori dala eta, tokiko ekonomiak ez badau garrantzia handiagoa hartzean eta ez badauz bere estrategiak diseinetan, kontrolau ezin dituan aldagaien menpe egongo da. Tokiko estrategia honeek, arlo publiko, pribadu, jakintzearen arloa eta gizarte zibilaren alkarlana eskatuten dabe. Horixe izan zan egoera Latinoamerikan eta Karibearen.

Arratiako gaur egungo egoera ez dot ondo ezetuten, egun bi baino ez dira Igorren nagoala eta. Kanpotik ikusten dot hau Parke Natural baten ondoan dagoan eskualde bat dala eta, pentsetan dot, basogintzea, egurra, jatekoak eta okelea ekoiztuko dirala hemen. Gaur egun, produktuok ekologikoak izatea derrigorra da nire ustez. Eta hori ikusi ezean, burruka galduta dago.

Horrek suposatzen dauan aldatetia ia iraultza industrial bat da. Produktzio moduak aldatu behar dira, nekazaritza eta abeltzaintza egonkorak izan daitezkan. Ezin dira sektoreak bananduta eta bakarka begiratu. Produktzio kateatze multzo bateri moduan erreparau behar jako. Izan be, lehenengo sektoreko baliabideen erabilera potentzialetik abiatuta, agroindustria eta turismoko puntako produktuak agertu daitezke. Produktu honeek gainera, parke natural bateri lotutako eremuan dagoz eta marka bat sortu daiteke. Hori eredu produktiboa sakon aldatzea izango



Francisco Alburquerque.

Argazkia: Imanol Garcia.

litzateke, eta ez bakarrik finantzak konpondutea, Espainiako gobernua egiten dauan moduan.

Ikusten danez, errotik ekin behar jako arazoari. Hori ez egoan hain argi Latinoamerikan 90 urteetan, baina argi egoan neoliberalismoak ez ebala funtzionetan eta erreforma estrukturalerako planak, eskasia baino ez ebela ekarten. Horregaitik Latinoamerikako agintari batzuk Europako agintariak baino buruargiagoak dira, ipuin hau badakielako. Marx-ek esaten eban moduan historia errepikatzen bada, behin tragedia moduan eta beste behin farsa moduan, hemen errebolta bat egongo da, hori espero dot nik, behintzat. Akaso, jentearen nazkaren espilua da Podemos. Espero dot Espainiako estatuak Latinoamerikako leku askotan jaso eban neurriko erantzun kritikoa jaso dagiala.

Leku bakotxean

baliabide potentzialak

eta aurrera eroan

daitezkan erronkak

identifikau behar dira

Zerbitzu publikoen eta enpleguaren suntsiketean Arratian be sentiduten da. Politika honeen zenbaterainoko eragina daukie eta politika honeei kontra egindako jardunak be zenbaterainoko eragina daukie ekonomian?

1980ko hamarkadan birmoldaketa industrialaren krisia egon zan. Orduan, garrantzi handiko sektoreak, ontzigitzak, siderurgiak eta abar krisi handia sufridu eben. Langabezia orokortu egin zan eta honeri aurre egiteko enplegu agentziak sortzeako udal erantzukizun publikoa sortu zan. Hor sortzean da tokiko garapen ekonomia, leku batera egokitze erreminta moduan.

Leku bakotxean baliabide potentzialak eta aurrera eroan daitezkan erronkak identifikau behar dira. Eta potentzialidade horreek aprobetxetako giza baliabidei formazioa emon behar jakie. Horregaitik, beharrezkoa da tokiko enplegu sistema bat, izan be, eskualdetik bakarrik aprobetxau daitezke leku baten enplegu potentzialidadeak.

Enplegua tokiko kontua da, barrikuntzea be bai. Aurrerapen handiak egon dira gai horreetan eta Euskal Herriko tokiko garapen agentziak Nazino Batuetan aitatzen dira praktikan moduan.

Zer da tokiko garapen jasangarria? Zer eskeintzen dau? Ekonomia feministek egiten dauan moduan, personen beharrezanetan zentretan da eta ez merkaduetan? Ekonomia sisteman ikusten ez diran arloak (etxeko beharra, zaintza eta abar) ikustearazoten ditu?

Errezetarik ez dago. Begiratzeko modua aldatzean datza toki garapenak, personen beharrezanetan oinarrituta. Eskualdea, esaten dogu baina eskualdea ez geografía moduan, antolatutako herriar moltsu moduan baino, egoerearen kontzientzia daukan jentear osotuta eta prozesu parte-hartzaileak definituten dauana. Prozesu honeetan partaide garrantzitsuenak eskualde horren garapen estrategiaren ardatzak, baliabideak eta bizitasuna eztabaidatzen ditue.

Jentea oinarritat hartu behar da. Martxan ipinten dan prozesuak jentearen beharrezanetan kontuan izan behar ditu, bizimodua hobetuteko. Horretan bat egiten dabe tokiko garapenak, giza garapenak, garapen iraunkorak eta genero enfokeak, eta sano kritikoak dira nagusitu dan planteamentu neoliberalagaz. Nire ustez, toki garapen jasangarriak ikuspuntu horreek guztiak txertatu beharko leukez.

Toki garapen jasangarria holan definituko neuke: jentearen bizimodua hobetuteko helburuagaz, prozesu parte-hartzaileak, leku baten garapen estrategiak modu adostu baten bilatzen dituan. Estrategia honeek iraunkorak izan behar dira ikuspuntu sozial, ekonomiko eta instituzionaletik. **"Desarrollo Económico local y descentralización en América latina" zeure artikuluan, prozesu honeetan izaten diran zortzi oinarritzko elementu aitatzen dozuz. Arratian bosgarrenean gogozala esan daiteke, jardunaldi honeek Arratiarako garapen estrategia bat adosteko helburua daukie eta. Orain arte, bertako jentearagaz prozesu parte-hartzaileak ipini dira martxan, udalak eta eskualdeko erakundeak jarkera proaktiboa izan dabe, arlo publikoa eta pribadua alkarlanean dabiz... Esan daiteke Toki Garapena izan dala eredu neoliberalari aurre egiteko aukeratu dan modua. Baina behin modua aukeratuta hasten da jentearen parte hartzea. Nork ebatzi dau eredu hau apliketean, eta ez beste bat, ekonomia feministek proposatzen dauana, esaterako?**

Honeri eredu deitzea gehiegi iruditzen jata, bideorria akaso. Latinoamerikan izandako 29 kasutan oinarrituta eginda dago eta orduan genero aldagaia ez zan agertuten. Arratian, seguru asko gizarte antolatua barruan andra taldeak egongo dira. Ados nago eragile garrantzitsua dala eta sekuentzia honetan falta dan funtsezko eragilea dala.

DIMA



Ana Petralanda eta Alberto Aldana. Argazkia: dimaberriak.blogspot.com/.

Ana Petralanda eta Alberto Aldana Diman

Erredakzioa

Abenduaren 13an, Ana Petralanda dimoztarra Dimara bueltatu zuen 34

urte errefujiau politiko moduan pasatu ostean. Beragaz batera Alberto Aldana bere koinatua egon zuen, hau be errefujiau politikoa

izandakoa. Dimako Etxean Gure Doguz mobimentuak harrerea egin eutsen eta ondoren kalejireta, trikipotea eta herri bazkaria egin eben. Egun osoko jaia izan zan.

Dimako Dantza Barri taldeagaz egin eutseen harrerea plazan. Ondoren, ekitaldia egin zan frontoian. Han, Arkaitz Estiballes eta Lur Ziarrusta bertsolariak bertsoak kantatu eta hainbat adierazpen egin ziran: alkatearena, Sortuko ordezkariarena, Etxerat-ekoarena, Andraizea taldeko ordezkariarena eta gazteena. Indusiko auzokideak Indusiko kantua abestu eutseen eta opariak jaso ebezan: kaiku bana, Andraizea taldekoen kamiseta bana, Argizaiola Petralandak eta Eguzkilorea Aldanak, eta beste gauza asko.

Bazkaria eskolan izan zan eta 160 lagun batu ziran bertan. Bazkalostean bideo bat proiektatu zan gazte denporako argazkiak eta auzokideen eta lagunen adierazpenak.

ARRATIA

Mankomunidadeak Bizkaibusean ibilbide barriari konponbidea topatzeko eskatu deutso Aldundiari

Erredakzioa

Arratiako Bizkaibuseko ibilbide batzuk barriro disenatu ostean, Zeanuritik eta Otxandiotik urtetan dira lineak ez dira Galdakaoko erdialditik igaroten. Mankomunidadearen ustez, leku hori erreferentziazko puntua da eskualderako, beste errazoi batzuen artean anbulatorioa dagoalako herri horretan. Horregaitik, eta udalen kezka ikusita, Arratiako Udalen Mankomunidadeak Bizkaiko Foru Aldundiari zerbitzuaren planteamentu barria eta konponbidea aurkitzea eskatu deutso.

Dana dala, ibilbide barriak benta-jak ekarten deutsez egunero Arratiatik Bilbora joaten diran erabiltzailei. Izan be, ibilbidea zuzenagoa da eta denpora gutxiago behar da orain Arratiatik Bilbora joateko. Bijaiea

ordubete baino gehiagokoa da eta hogeta hamar geraleku baino gehiago ditu. Bost Galdakaon ziran eta horreetako hiru kale baten. Orain geraleku bi dagoz Galdakaon. Galdakaora doazenak, barriz, autobusa geratzen dan lekutik erdigunera oinez 10 minutu baino gutxiagoko osteratxoak daukie.

Mankomunidadeko iturriak jakitera emon dabeneran arabera, Foru Erakundeak Garraio Zuzendaritza, abenduaren 16an Mankomunidadeak bialdutako eskakizunaren ostean, kasua aztertzen dabil eta proposamen tekniko barri baten inguruan beharrean. Mankomunidadea eta Aldundia barriro alkartuko dira urtailaren bigarren hamabostaldian, aukera teknikoak eta udalen proposamenak aztertuteko.

ARRATIA

Baraualdia Igorren euskal presoan alde

Erredakzioa

Abenduaren 11tik 30era, Ernai Gazte Antolakundeak hamaika eguneko baraualdia antolatu eban euskal preso eta igeslarien alde "11 konpromiso askatasunerantz" lelopean. Baraualdia, hainbat herritan txandaka egin da. Igorren, 24 orduko baraualdia egin eben Kultur Etxeko plazan abenduaren 19tik 20ra.

Beste batzuen artean, ekimen informatiboak, mural tailerra, gaubela musikatu eta bideo emonaldia egin ziran bertan. Antolatzaileen arabera, helburua "gazteak aktibatu eta preso eta igeslarien alde konpromiso txikiak hartutea" zan. Abenduaren 30ean, kartzelatarako martxeagaz amaitu zan Ernaik antolatutako baraualdia.

ARRATIA

Arratia garatutako jardunaldiak urtailean izango dabe jarraipena

Erredakzioa

Dima, Igorre eta Lemoako Udalak Arratia garatutako plan estrategikoa diseinetako jardunaldiak an-

tolatu dabez abenduaren 11 eta 17 eta urtailaren 15 eta 22rako. Abenduan Tolosako alkatea, Ibai Iriarte; Joseba Garmendia, Sakanzen Sareako kidea eta Paco Al-

burquerque Tokiko Garapenean mundu mailan aditua egon ziran. Esperientzia honek "bideak argitu eta lanean jarraitutako bideak zabaldu dabez" jardunaldiok antolatu dabez udalerrietako alkateen arabera. Partaidetzea 100 pertsonatik gorakoa izan da eta sektore eta eragile desbardinak egon dira bertan.

Urtailaren 15ean, Igorreko Kultur Etxean, 18:30ean, Ainara Barsurko, Azaroka Fundazioko zuzendariak, Lea Artibaiko esperientzia

ARRATIA

Mankomunidadeak aurrekontuak onartu dauz



Mankomunidadea dagoan eraikina.

Erredakzioa

2015rako aurrekontua 2.545.973 eurokoa da, igazkoa baino % 3,86 txikiagoa, eta EAJ-PNVren 9 botogaz eta Bilduren 4 abstentzinogaz onartu zan abenduaren 17an. Mankomunidadeko kontuez gainera, Arratiako Egoitza Erakunde Autonomoarentzat 1.851.491 euroko aurrekontua be onartu zan osoko bilkura horretan.

2014ko hasierako aurrekontuak baino diru gutxiago izan arren, kontuok gizarte ekarpenak sendotu eta zerbitzu guztiak eutsi egiten deutseela dinoe Mankomunida-

detik. Udalak 659.642 euroko zenbatekoa emongo dabe guztira, hau da, 2014an aurreikusitako kopurua baino % 5,04 gutxiago. Aurrekontuko gastuen portzentajea programen arabera hauxe da: Etxeko Hondakinen Kudeaketak % 43 hartzean dau, Gizarte Ekintzak % 30, Administrazioak % 15, Argiztapen Publikoak % 5, Iraunkortasunak % 4, Gazteriak % 4 eta Babes Zibilak % 0,40.

Aurrekontu honeetan, konsolidatu egin da 16.000 euroko babes-ekarpena Gizarte Larrialdietarako Laguntzarako partidan.

ARRATIA

Gabonetako loteria Arratian

Erredakzioa

Aurreko itaunari erantzun eutsien heren bik loterian 40 eurotik gora gastetako asmoa azaldu eben. Emon daigun, diru hori gastatu egin dabela. Kontuan izanda Espainiako Gabonetako loterian bigarren sariaren zati bat Euskal Herrian tokatu zala, be-

gintun jakin gura dogu ea oraingoan joko errenta izan ete dan gure irakurleentzat.

Itauna, beraz, hauxe:

Loterian dirurik tokatu jatzu?

Eta erantzun posibleak:

- Ez.
- Jokatutakoa baino gutxiago.
- Jokatutakoa.
- Jokatutakoa baino gehiago.

aurkeztuko dau eta jardunaldien atzen egunean, hilak 22, Arratiari begirako hausnarketea egingo da Elhuyarrek gidatutako partehartzearen bitartez.

Jentean oinarritutako ekonomia baten bila

Atzenengo urteetan langabeziak gora egin dau Arratian, enpresak zarratu egin dira, eta antolatzaileen ustez, ez dago plangintza eraginkor bat diseinatu egoera horri bueltea emoteko. Plan

horren oinarriak eta helburuak herritar eta sektore desbardin partaidetzeagaz landu gura dabez Igorre, Dima eta Lemoako Udalak jardunaldi honeetan.

Horretarako, Tokiko Garapen iraunkoraren enfokoa aukeratu da. Enfokoa hau, makroekonomia konbentzionaletik urrundu egiten da eta eremu bateko jentear partaidetzeagaz leku horren berezitasunak hartzean diru kontuan, tokiko garapena, enplegua eta inguruaren iraunkortasuna lortzeako.

IGORREKO GAZTE PLANA

Euren premia eta nahietatik abiatuko dabe gazteak Igorreko Gazte Plana

Zazparrak alkarteak hainbat proiektu ditu martxan, horretako bat Igorreko gazteai zuzendutakoa. Apriletik uda arte, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak Igorreko Gazte Proiektua diseinetan ibili dira. Ehun gazte inguruk hartu dabe parte proiektu horren diseinuan. Maratu izena ipini deusie proiektuari eta aisialdian zentretan da. Urtilatik aurrera, 30 urte arteko Gazte Plan integralagoa egiteko parte hartze prozesua ipiniko da martxan.



Gazteak urtekera baten.

Erredakzioa

Zazparrak-ek 10 urte daroaz Igorreko ludotekea kudeatzen eta ikusi eben zerbitzu hau erabilteari ixten deusienean, 12-14 urteko gazteak, "umezurtz" geratuten

dirala, nora joan izan barik. Erexi hori gazteak eurak konfirmetan dabe "ez daukagu ezer, beti egiten dogu bardina" dinoe.

Premia hori beteteko baliabideak eskeintzeko asmoagaz, Udala Zazparrak-egaz ipini zan

kontaktuan eta Gazte Plan bat egiteko aurreproiektu moduko bat egin dabe Maratu izenekoa. Holan, gazteriaren egoerari buruzko diagnostiko bat egin eta 12 eta 18 urte bitarteko gazteak eurak diseinatu dabela Gazte

proiektua dino Laura Ruiz Zazparrak taldeko eta Maratuko partaideak.

Gazteak Gaztelekuak behar dabe

Diagnostikoa egiterakoan, Maratukoak ikusi dabe euren aisialdia Igorren emoten daben gazteak ez dirala Igorrekoak bakarrik, beste herri batzuetakoak be Igorrera etorten dirala. Izan be, kuadrilak Institutuko lagunak osotuten dabez, ez dira herriko sortzean. Dana dala, kuadrilok nahiko berezitatea dagoz, eta ez daukie alkarregazko hartu-emonik. Saretu, maratu, beharra ikusten dabe proiektuko partaideak.

"Sareak egitea sano inportantea da. Gazteriak saretea behar dau, kohesino bat behar dau, kudarilen arteko hartu-emonak..." dinoe Maratukoak. Prozesu horretan Zazparrak-ekoak bitartekari izan dira, Udala eta gazteen artean eta baita kuadrilen artean. "Kuadrilak Maraturen bitartez batzean gara eta hori gustetan jaku" dinoe parte hartu daben gazteak.

Euren aisialdia kudeatzeako espazio baten premia be ikusten dabe. Batez be, 12 eta 15 urte artekoak. 15 eta 18 urte arteko batzuk -ez asko- lokaletan alkar-tuten dira, edo Gaztetxean, baina honeek be aisialdia kudeatuteko baliabideak eskatzen dabez.

Gazteenakaz kontaktuan ipinteko, Zazparrak-ekoak kale erabiltzaile bihurtu ziran. "Kalean slackline egiten hasi ginan eta eurak hurreratu ziran gugana.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Kili-Kili
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
[kiliigorre@gmail.com](mailto:kilikigorre@gmail.com)

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Elexalde 4
Telefonia 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

arratiako
instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

begitu
arriate urtate zabalak

Gero komentau geuntsen zelan Udalak emon euskuzan baliabide batzuk eta Udalak jakin gura eba-la zelan egin gazte proiektu bat. Geugaz horretan parte hartzea proposatu geuntsen eta kuadrilaka egin genduzan parte-hartze dinamikak". Proiektuan parte hartu daberen gazteak Maratuk beste gauza batzuk egiteko baliabideak eta aukerak emon deusezala dinoe. "Orain ez gara aspertuten".

Gazteak, gazteenak batez be, Gaztelekua behar dabela dinoe "bertan egoteko, danok alkartuteko leku bat eukiteko eta ez aspertuteko". Izan be, Gaztelekua aisialdian alkar bizitza antolatuteko derrigorrezkotzat jotzen dabe. Hori zelan kudeatu, ordutegiak, eta abar asanbladetan ebatzi dabe.

Urtailean Gazte Plana

Maratu, 12 eta 18 urte artekoen aisialdiaren gaineko Gazteria Proiektu hau, abuztuaren amaieran amaitu eben. Hau egin bitartean, sano giro ona sortu zan eta kuadrilen arteko hartu-emonak garatu egin ziran. Abuztutik urtailera giro hau mantenduteko egiten dabe behar Maratukoak. Udatik abendura 60 gaztek hartu dabe parte ekintza diferenteetan.

Urtailean hasiko dira Gazte Plan integralago bat egiten. Gazte Plan honetan ez bakarrik aisialdia, seguru asko, etxea, enplegua, mobikortasuna, konsumoak... eta abar landuko dira. Jakin, ez dago jakiterik, gazteak eurak markau behar dabez-eta eurei interesetan jakiezan arloak.

Plan hori egiteko, diseinuan parte hartu dabenez gainera,

Igorreko 18 eta 30 urte arteko jentearen partaidetzea behar da. "Jente horrek esan beharko dau Udalak ze zerbitzu ipintea gura dauan. Ezin dana egin da asmatuten ibili. Guk baliabideak ipini eta bitartekari beharra egingo dogu" dino Laura Ruizek. Horretarako eragileakaz kontaktuan ipinten hasi dira. Kiñu Gaztetxea da eragile horreetako bat.

Holango proiektu batek danean eragiten dau. "Gazteria ez da gazteria bakarrik, eragiten dau danean: urigintzan, bardintasunean, kulturean, kirolean... eta uste dogu modu integralean landu behar dala. Eragile desbardinakaz batzeako asmoa hortik dator" azaldu dau Illart Gumuziok. Horregaitik, herriko eragileakaz koordinatu eta hartu-emonetan ipinten hasi dira. Eragileakaz batera, udal ba-

tzordeakaz be koordinauko dira. Gizarte eragile eta udal batzordeen artean, Plana ondo txertatzea gura dabe gazteak.

Arratiako Gazteria Plan eta zerbitzuak

Ez bakarrik Igorrekoa Zaztaparrak alkarrean Lemoako Gazteria zerbitzua be kudeatzen dau. Honezkerok, ibilbide bat eginda dauka Lemoako zerbitzu honek; izan be, orain urte bi inguru ipini zan martxan eta behar handia egin dau. Lemoan Gaztelekua badago eta Gazte Teknikari bat be bai. Enplegua, etxebizitza, mobikortasuna eta memoria historikoa dira Lemoako Gazte Zerbitzuan landutako arlo batzuk. Memoria historikoa dala-eta, Auzolandegiak eroan dauz Gazteria Zerbitzuak Lemoara eta mundu zabaleko gazteen lanari esker Lemoatxako trintxerak erreketan dabiz.

Arratia mailakoak ziran, orain urte batzuk, Gazte Planak. Illart Gumuziok eta Laura Ruizek ondo ikusten dabe herri bakoitzean herri horri egokitutako gazteri proiektu bat egotea, baina proiektu guztien arteko koordinazioa egon behar dala uste dabe. Koordinazio honen helburua, plan eta zerbitzui osotasuna emotea eta dagozan baliabideai atarremendurik onena ateratea izango litzateke.

Ez bakarrik Igorrekoa

Zaztaparrak taldeak

Lemoako Gazteria zerbitzua

be kudeatzen dau



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkala)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

AIZKOREA**Bizkaiko aizkora txapela Atutxa II.arentzat eta podium arratiarra****Erredakzioa**

Aitzol Atuxak Bizkaiko txapela irabazi eban abenduaren 22an Bilbon eta honegaz urte ezin hobea biribildu eban, dozena erdi bat txapel jantzi ebazan 2014an eta. Arratiako aizkorearen jaia izan zan Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatutako Bizkaiko Txapelketea; izan be, hiru arratiarrek osotu eben podiuma: Julen Mendieta lemoztarrak egin eban bigarren eta Xabier Garcia "Utxu"

Diman bizi dan lemoztarrak hirugarren.

Publiko "lar" txapeldunaren eretxian. Egun haretan Santomas ospatu eben Bilbon eta pasetan zan guztia geratzen zan aizkolarien lana ikusten. Aitzol Atuxak hasikera-hasikeratik hartu eban aurea eta aldea handituten joan zan beharra egin ahala. "Arratiak aizkora daukan maila erakutsi dau, lehenengo hirurak Arratiakoak izan gara eta" dino pozik Atuxak.

**Aitzol Atutxa.****MENDIA****Mendian federetako momentua da****Erredakzioa**

Urtea hasibari danean, Mendi federazioan federetako momentua da eta Arratiako mendi talde gehienak emoten dabe horretarako aukerea.

Mendian federetako mendi talde batera jo behar da. Han, jakinarazoten dabe urteko lizentziaren prezioa eta gainerako izapide guztiak egiteaz mendi taldekoak arduratzen dira. Federatutakoan, istripu aseguruia izaten da eta talde edo mendi alkarteen jarduera askotan deskontuak.

Ubideko Amexier Mendi Taldean, Zeberioko Austarri Mendi Taldean, Lemoako Ganzabal Mendi Taldean, Zeanuriko Joko Alai eta Suzien Mendi Klubean eta Areatzako Lamino Kirol Klubean emon daiteke izena federetako.

ZIKLO-KROSA**Arratiako ziklo-kroslariak lehenengo postuetan****Erredakzioa**

Euskal Herriko Ziklo-kros Txapelketan, txapeldun izan zan Manu Quintanilla Igorrekoa, Master 40 kategorian eta beste arratiar bi be podium-era igon ziran, Naia Alzola, bigarren eginda Elitean, eta Mikel Epalza hirugarren egin ebana Master 30ean. Proba Izarrian izan zan abenduaren 28an.

Denporaldi ezin hobea dabiz egiten Arratiako ziklo-kroslariak eta ia proba guztietan dagoz arratiarrek podiumean.

Holan, abenduaren 14an Legazpin, Elite mailan Julen Zuberok bigarren egin eban. Bigarren be geratu zan Jon Mikel Kareaga Opel Ibaiganekoa 23 urte arteko kategorian eta Mikel Epalzak 3. egin eban bere kategorian.

Hurrengo domekan, Oñatin, hiru izan ziran hirugarren egin eben arratiarrek: Naia Alzola Elite mailan, Mikel Epalza Master 30ean eta Manu Quintanilla Master 40ean. Aitatu egin behar da be Julen Zuberoren laugarren postua.

**Mikel Epalza.**

"Begituten begituten jarraituko dogu gure begiokaz zeuon begietara. Begituten begituten zeuon begiokaz gure begietara begituten begituten egongo gara". Gontzal Mendibil

**Zorionak!
Urte barri on!**

MENDIA

Urkiolako parkeak bide ofizialen sarea estrenau dau

Erredakzinoa

Urkiolako Parke Naturalak 80 km.ko bide sare homologatua estrenau eban 2014ko abenduan. Bizkaiko Mendi Federazioak homologau ebazan bideak, txukun-

du eta seinalizazioa hobetu ondoren. Urkiolako parkean holango bederatzi bide dagoz, 80,3 km. guztira. Urkiolako bide homologauen artean, PR-BI 41 Baltzola, bide mitologikoa dago, 7 km.koa.



PR-BI 41 bidea.

FUTBOLA

Gabonetako I. Benjamin Harrobi Txapelketea Lemoan

Erredakzinoa

Lemoako Arlonagusia futbol zelaian, hilaren 3 eta 4ko goizetan, Gabonetako I. Benjamin Harrobi Txapelketea jokatuko da. Bertan

8 talde neurtuko dira: Lan Bide FE, Lemoako Harrobi, Lakua, Baskonia FE, CD Vulcano, EF Villa Ermua, Joko Alai Zeanuri, SD Etxebarri, SD Umore Ona, CD Arratia eta Atxulaur KE, hain zuzen be.

GABONETAKO I. BENJAMIN HARROBI TXAPELKETA

Arlonagusia futbol zelaian
URTARRILAK 3 eta 4 Goizean
Sarrera: 1€



MENDIA

Txikonnek, Urubkok eta Bielecki-k K2rako espedizinoa bertan behera itxi dabe

Atzenean bertan behera itxi behar izan dabe Alex Txikonnek eta bere espedizionokideak K2ra neguko igoera Txinak ez deuselako baimenik emon.

Erredakzinoa

K2ari iparretik ekin behar eutsien mendizaleak, eta iparreko bide hori Txinatik hartu behar da. Txinan ez deuse sartzean itxi "Sinkiang-en izandako ekintza terroristakaitik" hori dala eta, Txinako agintariak dinoe ez dala leku segurua kanpoztarrentzat eta proponiduten deuse etxotea egoera hobetu arte.

Hasikera baten Txinako gobernuak baimena emon arren, geroxeago Urubkok gutun bat jaso eban baimen hori kentzean. Hori zala-eta, hamabost egun atzeratu behar izan eban espedizinoa eta hilaren 7an eukien Karakorum-



Txikon Urubkogaz batera.

erantza abiatzeko asmoa. Baina baimena emon eta bertan behera fetxa horrearako be ez deuse itxi behar izan dabe espedizinoa.

FUTBOLA

2015 urterako prest Arratia

Ainhoa Duñabeitia

Arratia andrazkoen lehen taldeak, Euskal Ligako 5. postuan amaitu dau 2014a. 11 partidu jokatuko dabez, horreetatik 5 irabazi, 4 galdu eta 2 bardindu dabez. 12. jardunaldia etxetik kanpo jokatuko dabe, hilaren 3an, Lantaron taldearen kontra.

Arratia gizonezkoen lehen taldeak 12. postuan amaitu dau urtea, 17 puntugaz. 14 neurketa jokatuko dabez, horreetatik 5 galdu, 5 bardindu eta 4 irabazi dabez. Atzen norgehiagokan, abenduaren 21ean, ezin izan eban garaipenik lortu Aceroren kontra, 2 eta 1 galdu eban. Hurrengo neurketea, 15. jardunaldia izango da hain zuzen be, Zalduaren kontra etxetik kanpo jokatuko dabe.

Gizonezko bigarren taldeak be, emoitza onakaz esan deutso agur 2014ari. 4. postuan amaitu dabe, 6 garaipen, 2 bardinketa eta 2 porrotegaz. Ederto dabil Arratia B taldea. Hurrengo neurketea, urtailaren 4an izango dabe Gernikan. Gernika Sporting B izango dabe aurrez aurre.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrek sailkapeneko 6. postuan hasiko dabe urtea

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek 10 neurketa jokatuko dabez, irabazi 4 egin ditue, bardindu 1 eta galdu 5; 26 puntu daukiez.

Abenduaren 21ean atzen norgehiagokea jokatuko eban El Fango rugby zelaian. Univ. Bilbao Rugby B taldea izan eban aurrez aurre Arratiakoak. Neurketeari sano hasikera ona emon eutsien Arratiko Zekorrek baina atzen emoitzeak ez eban bardina erakutsi. Univ.Bilbao Rugby B 29 Arratiko Zekorrek RT 22.

Hurrengo partidua etxean jokatuko dabe urtailaren 10ean Getxo Rugby B taldearen kontra.

Errugbi eskolak

Arratiako gaztetxoak ostera errugbia ikasteko aukerea be badaukie orain. Barikuro arratiko bostetatik aurrera entrenamentuak dagoz San Txisme zelaian. Bertan 5 urtetik gorako umeak dabiz errugbia ikasten. Deialdia zabala da eta Zekorrek bertaratzeko deialdia egiten deuse gaztetxoai.



AGESOREAK
basolo Emaldi
FREN ADMINISTRAZALIA
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

umean modu
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

LASARTE ARETOA

Lasarte Aretoko lagun izatea merkeago hilaren 9ra arte

Erredakzioa

Igorreko Lasarte Aretoko lagun txartela merkeago izaten da Gabonetako sasoiaren. Urtailaren 9ra arte, 25 euro balioko dau txartela egin edo barrizatzeak, ohi baino 5 euro gixiago. Kultur Etxeko harreraren egin edota barriztuten dabez txartelok.

Lasarte Aretoko lagunak % 25eko deskontua dauka ikuskizun guztietan, urtean ikuskizun bat debalde, lau pelikula ikusteko sarrerak be debalde eta % 15eko deskontua Udalak antolatutako ikastaroetan.

Gainera, Lasarte Aretoko lagunak Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan deskontuak ditue txartel honeguz.



BERTSOLARITZEA

Fredri Paia eroan eban txapela, Arkaitz Estiballes txapeldunorde



Arkaitz Estiballes, beste zazpi finalistak atzean daukazala.

Erredakzioa

2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala ikusteko, 4.350 bertsozale batu ziran Bilbao Arenan, inoz izan dan finalik jentetsuenean. Buruz burukoan, aurreko txapeldun eta Zeanuriko bizilaguna dan Arkaitz Estiballes eta Algortako Fredri Paia neurtu ziran. Txapela Algortakoarentzat izan zan. Kristina Mardarasek jantzi eutsan txapela 2014ko txapeldunari.

Zortzi finalisten behar puntuagarria amaitutakoan lehenengoa zan Estiballes 524,5 puntugaz, Paia, barriz, 520,5 puntu ebazan. Buruz burukoan baina, aurea hartu e-

tsan Algortakoak 901 puntu lortuz. Estiballesek 874,5 puntugaz amaitu eban saioa.

Gai interesgarriak

Aitatu beharrekoa da gai emoleen beharra. Izan be, sano gai interesgarriak izan ziran bertsolarien eta publikoaren arteko konexinorako proposak. Gai emole beharretan, Zuriñe larritu Azpitarte eta Maite Berriozabal Berrizbeitia ibili ziran.

Epaimahaia Ander Txakartegi Basterretxeak, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxak, Jon Jaio Aiartzaguenak, Joseba Santxo Uriartek, Jurgi Fuentes Goikoetxeak eta Mirari Azula Aurrekoetxeak osotu eben.

LEHIAKETEAK

Karmengo Ama ikastetxeko ikasleak Lego League irabazi dabe

Erredakzioa

Zornotzako ikastetxe honetako 2., 3. eta 4. mailako DBHko ikasleen talde batek Euskadiko First Lego League irabazi dau. Iker Quintanilla eta Peio Quintana arratiarrak talde honen partaide dira. First Lego League, zientzia eta teknologia sustatzeko helburua daukan nazioarteko lehiaketea da. Euskadiko txapeldunak Estatu mailako lehiaketan hartuko dabe parte martian.

Lehiaketak hiru ardatz ditu. Lehenengo ardatza robotika da eta ikasleak robot bat diseinatu eta programatu behar dabe eta robot honek Legok emondako eginbeharrak bete behar dauz.

Bigarren ardatza, proiektu zientifikoa da. Aurtengo gaia Hezkuntza izan da. Ikerketa bat egin be-

har dabe ikasleak eta urtenbide barritzaileak emon. "Taldea honek sare sozialen inguruan egin dau behar. Inkesta bat egin eben eta ikusi eben, WhatsAppen bidez umeak berba mingarriak jasoten dabezala. Urtenbide moduan aplikazio bat egin dabe, data base bat daukana eta horreetako berba mingarri bat dagoanean hirugarren persona bateri heltean jako" azaldu deutso BEGURI Kristina Gonzalez Karmengo Ama ikastetxeko zuzendari pedagogikoak. Aplikazioa eurak ezin ebenez garatu Maristetako informatika ikasleak ipini ziran kontaktuan eta posta elektronikoa erabiliz simulazio bat egin eben.

Hirugarren ardatza, behar hau egiten taldean bizi izan dabezan baloreak azaltzen dauan poster bat izan da.



OMENALDIA

Martin Orberi omenaldia

Jon Urutxurtu

1958 eta 1978 urteen bitartean Zeanurin abade egon zan Martin Orbe omendu eben zeanuriztarrek abenduaren 15ean. Omenaldia Zeanuriko Gabon Kulturaleko egitarauaren barruan antolatu zan eta herriko txistulari taldearen iniziatibea izan zan.

Herria itxi ebanetik 36 urte igaro badira be, oraindino zeanuriztar askok gogoan daukie Martin eta omenaldi xumea baina aldi berean hungarria antolatu eutsien. Zeanuriko eta Arratiako beste herri batzuetako jente asko hurreratu zan San Isidro eleizara, "Don Martin" omentzeko. Herriko kultur talde eta erakundee-tako ordezkariak protagonismo berezia izan eben ekitaldian: txistulari taldeak, dantzariak, Eñaut Intxaurreaga eta Jabi Olibares bertsolariak, Zeñi Antzerki Taldeak, Esti eta Olatz, eta Gontzal Mendibil abeslariak, abesbatzak, Martinegaz Zulaibargo esko-

lan behar egin eben lankideak, udaleko ordezkariak... Danak eskerrak emon eutsiezan Zeanurin egon zan hoguei urteetan arlo desbardinetan egin eban beharragaitik: bai eleiza arloan, bai irakaskuntzan Zulaibargo Eskolako zuzendari eta irakasle moduan, eta baita kultura arloan be, hainbat eta hainbat ekintza kulturelaren eragilea izan zan eta.

Martinek berak be berba egin



Omenaldiko irudi batzuk.

Argazkiak: Miren Idigoras.

eban eskerrak emoteko eta Zeanurin bizi ebazan urteetako anekdota bitxi eta barregarri batzuk aitatu ebazan: abade barri legez, 23 urtegeaz, bildurtuta etorri zala gogoratuz eta hogeta hamar urte igaro ondoren, 1978an Zeanuri itxi ebanean On Pedro Atutxa abade beteranoak esan eutsazan berbakaz amaitu eban: "Hi hemen egin haz gizon".

Ekitaldiari Xabier Amurizak emon eutsan amaiera, bertara hurreratu ziran guztiak batera Martin Orberen Zeanuriko bizipenak laburtzen ebazan bertso idatziak abestuz.

KANTUA

Kantu bat sortu eta bideoklipa egingo dabe zeberioztarrak

Erredakzioa

Ekintza hau ludotekako arduradunen ekimenez sortu zan, baina ez dago umeai bakarrik zuzenduta, nagusiak be hartuko dabe parte. Kantuaren letra Kepa Perez Urrazak idatzi dau eta musika proiektuan parte hartzean dabenen artean egiten dabiz. Honegaz lotuta hip-hop tailer bat antolatu eben abenduaren 30ean eta bertan grabauko dabene kantuarren zatitxo bat prestatu eben. Hilaren 22an eta 29an entsegu orokorrak izango dira eta hilaren 31n, Arantzazuko estudioan grabaketea egitea aurreikusten dabe.

Kepa Perez Urrazaren hitzetik abiatuta, umeak emongo deutsee zentzua kantu eta berbai, eurek osotuko dabe kantua eta. Umeak kantua ikasi dagien eta grabaketea zelari izango dan jakiteko tailerak antolatu dira, hip-hop tai-

lerra tartean. Hau egitea 9 urtetik gorakoentzat derrigorrezkoa da kantuarren grabaketan parte hartzeako. Abenduaren 30ean izan zan hip-hop tailerra baina beru egiteko beste aukera bat ipinteko asmoa adierazo dabe antolatzaileak.


Entseguak

Parte hartzeako baldintza desbardinak bete behar dabez 4 eta 9 urte bitarteko umeak, zein 9 urtetik gorakoak. 4 eta 9 urte bitartekoak entsegu arrunt baten eta orokor baten hartu behar dabe parte; 9 urtetik gorakoak, barriz, horrezaz gainera, hip-hop tailerra egin behar dabe.

Kantuarren entseguak, 4 eta 9 urte bitartekoentzat, hilaren 5ean 11:30ean eta hilaren 12an 17:30ean izango dira ludotekan. Entsegu orokorrak, barriz, hilaren 22an eta 29an arrastiko 17:30ean.

KONTZERTUA

Anje Duhalderen kontzertua urtailaren 9an Igorren



Anje Duhalde.

Erredakzioa

Anje Duhalde, urtailaren 9an egongo da arrastiko 20:00etan Lasarte Aretoan, sano kantu ezagunak jotzen. Arteako jaietan be egon zan Lapurdiko kantaria 2012an, eta arratiarrak orduan be zuzenean entzuteko aukerea euki eben.

Anje Duhalde (Lapurdi, 1950) Errobi talde mitikoa sortu eban 1970eko hamarkadan eta harrezkerotzik gaur arte, hor ibili da oholtza gainean, gitarrea hartuta, euskeraz kantetan. Errobi taldea desegin zanean, bakarlari

moduan jarraitu eban eta beste talde batzuek kolaborazioak be egin ebazan. Akelarre taldeagaz lau urtez ibili zan berbenetan jotzen eta Akelarreren disko bitan hartu eban parte. Bakarka beste disko bi atera eta 1991ean Xabier Amuriza bertsolariagaz egindako diskoa be atera eban. Ondoren, *Bakezaleak* (1992) argitaratu eban, oso kritika onak jasoz, eta 1993an *Zuzenean* disko biko-txa. Han, bere kantuen bilduma egiten da. Harrezkero *Azkarate*, *Pinpirin* eta *Florian* eta *George Brassens kantari* diskoak plaza-ratu ditu.

ANTZERKIA

Ipuin tradizionalen bersino modernoa

Erredakzioa

Glu-glu produkzioak-ek, *Hiru txerri-toak eta otsoa* umeentzako antzerkia antzetzuko dau hilaren 4an, arrastiko seiretan, Igorreko Lasarte Aretoan. "Hiru txerri-toak" ipuin klasikoari gaur egungo edukiak gehitu deusiez Glu-glu taldekoak. Holan, komedia, jolasa, musikea eta jantzearen bitartez, herrietan bizimodu jasagarria eta dibertigarria bizi daitekela erakusten dabe txarikumeak. Ikuskizuna, 3 eta

9 urte bitarteko umeentzat da.

Antzezlan honetan, hiru txerri-toak urira biziten joatea ebatzi dabe. Hango giroa gatxa eta arrotza egiten jakie hasikeran: zaratea, kutsadurea, argiak, semaforoak... Eta zailtasunai neurria hartu deutse-la uste dabenean, arriskurik handiena ezetuten dabe: otso maltzurra. Otsoa, edozertarako prest dago hiru txerri-toak jateko. Putz eginez txerri-toak biren etxea botatzea lortuko dau, lastozkoa eta gurrezkoa.

Harrizko etxean, barriz, hiru txerri-toen alkartasun, buruargitasun eta ausardiagaz egingo dau topo.



EUSKERA

Merkatariak euskerearen erabilera handitzeko akordioa sinatu dabe

Erredakzioa

Lemoako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorretako 7 establezimientuk euskerearen erabilera handitzeko akordioa sinatu dabe Udalagaz. Udaleko Euskera Zerbitzuak konpromisoak hartzearen prozesuari ekin deutso, "Harro bizi euskeraz, saldu eta erosi" lelopean.

Herriko dendak, komertzioak eta enpresa txikiak sinatu daben akordio horretan, negozio baxotxaren errealidadea izan da abiapuntua. Establezimientuak, agoz zein idatziz, euskera areagotzeko konpromisoa hartu dau eta Udalak barriz bitartekoak eskeintzeko eta bide horretan lagunduteko.

Zazpi establezimientu

Konpromisoa sinatu daben merkataria honako honeek dira: Aliprox, Tresnak susministros industriales, Tibur argazkigintza, Mapfre aseguruak,

Kirlan kirol lanak, Opel Ibaigane eta Naiara Arrieta farmazia.

"Zazpi establezimientugaz behrean hasi bagara be, herriko edozein merkataria, ostalari edo enpresa txiki aukerea dauka edozein momentutan prozesuan sartzeako. Guztion indarrak batuz, herrira begirako kanpaina eta egitasmoak bideratu gura dira ekimen honetan. Hori guztia alkarlana oinarri izanda gauzatu gura da, Lemoan euskeraz saldu eta erosi daitekela herriratze-ko" dinoe Euskera Zerbitzutik.



Alkatea eta Euskera Teknikaria merkataria-
k.

DUNBA

Gabonak

Euskal Herriko etxe eta kaleetan zehar apaingarri ugari ikusi daikegu: Zugatza, Belena, Olentzero... Eta apaingarri horreekaz opariak eta janari oparoak lotu egiten doguz.

Zeberriko eskolako ikasleak

Opariak zugatzaren azpian, sarreran edo norberaren zapatilaren ondoan ipintzen dira.

Gauzak oso aldatuta dagoz. Antxina gabon zuzia bizten zan eta haren inguruan ipuinak kontau, abestiak abestu... egiten ohi ziran.

Gabon gauean ogiari atzen muturra ebagiten jakon eta urte osoan gorde edo hurrengo egunean senitarteko baxotxari apur bat emon jateko.

Euskal Herriko beste inguru batzuetan Olentzero agertzen zan sasoi honetan neguaren aurkezle.

70eko hamarkadan zabaldu zan ohitura eta umeai opariak banatzen

hasi zan Olentzero. Atzen jentila be bada. Beste personaje bat lotu jako, Mari Domingi.

Abesti eta personajeak batera



Olentzero.

janaria da beste ezaugarri bat. Lehen azea, makailua, arrain zopea, marrazkiloak... jaten ziran. Abestiak dinoan legez "Gabon gauen ohituten dogu guztiok opari ona".

Oparien gainean berba egiterakoan, zer ekarriko ete eutseen gure aitita-amamen aurrekoai? Eta nok ekarten eutsen?

Olentzerok? Errege Magoak? Aita Noelek? Beste personajearen batek? Ala opariak ez?

Hori guztiori gaurko ospakizunak alderatuko bagendu...

Kritika zorrotzak egin behar izango gendukez:

Kanpotik etorritako personajeak gure kaleak eta etxeak hartu egiten dabez.

Argia edonon: kaleetan larregi, etxeetan gero eta gehiago. Balkoietan



Olentzeroak eta Aita Noelak, Santa Klaus-ak edo Bizarzuriak (ez ahaztu Olentzero zikin joan behar dala ikazkina da eta). Janari larregi hurrengo egunean janari bera jan behar edo are txarrago bota behar, jentea gose danean.

Opariak neurri barik, asko behin erabili eta ahaztu.

Konsumo arazoak daukaguz.

AGENDEA

URTAILAK 2
AREATZA

18:00etatik 21:00etara, bideoak, mahai-jokoak, lehiaketak eta abar Gazte Lekuan.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

IGORRE

19:00etan, IrudiBERTSOtan, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi, Xabat Gallettebeitia bertsolariak eta Igor Menika marrazkigileagaz. Tramagilea: Iker Yurrebaso. Kultur Etxean.

Hilaren 9ra arte, Gorbeia Igorren erakusketea Kultur Etxean.

LEMOA

Lemoako Haur eta Gazteen XIV. Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik hilaren 23ra arte. Lanak liburutegian entregatu behar dira 16:30etik 19:30era.

20:00etan, antzezlan *Marxattack*.

Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

19:30ean, Juan Mari Beltranen *Euskal Herriko musika eta soinu tresnak* kontzertua Kultur Etxean.

URTAILAK 3

AREATZA

18:00etatik 21:00etara, bideoak, mahai-jokoak, lehiaketak eta abar Gazte Lekuan.

IGORRE

19:00etan, Areatzako Banda. Erregetako kontzertua, Lasarte Aretan.

LEMOA

11:00etatik aurrera, truke azokea; 20:00etan, pintxo lehiaketea Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, Bittor Kapanagaren ikuskizuna *Erro eta gara* Juan Martin Elexpuru, Anton Mari Aldekoa eta Gontzal Mendibilegaz.

URTAILAK 4

IGORRE

10:00etatik 15:00etara, Igorreko Igeriketa taldeak antolatuta, Eski pista aterpean.

18:00etan, Glu-glu produktzioak

umeentzako antzerkia *Hiru txerri txoak eta otsoa*. Lasarte Aretan.

LEMOA

20:00etan, dokumentala *Anarkista, atracador, falsificador pero sobre todo... albañil. Lucio*. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

17:00etan, zinea nagusientzat *Enemigo a las puertas*. Kultur Etxean.

URTAILAK 5

AREATZA

18:00etan Erregetako kabalgatea. Areatzaganen.

22:30etan kontzertua Makabi taldeagaz (Makarraldea 2.0). Laminetxe Gaztetxean.

BEDIA

18:00etan, Erregetako Kabalgatea.

Kabalgatearen aurretik txokolatea bananduko da.

DIMA

Dimako eleizako korua erresidentzietan.

IGORRE

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

LEMOA

22:00etan kontzertuak Zeinke eta Marianitos blai. Karabie Gaztetxean.

ZEBERIO

11:30ean, Zeberio Kantuz kantuaren entsegu 4 eta 9 urte bitartekoentzat.

URTAILAK 6

IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era,



Musika keltikoa The Quiet Corner-ean

Hilaren 16an, iluntzeko 21:30ean, Areatzako The Quiet Corner tabernan Kate Gass Project taldearen lehenengo kontzertua izango da. Kate Gassek eta Edu Andererek osotutako bikotea igazko urrietan sortu zan eta Areatzan emongo dau bere lehenengo kontzertua.

Musika keltikoa, tradizionala eta modernoa jotzen dau bikoteak. Kate Gassek kantuan egiten dau eta bibolina, whistles-ak, kontzertinea eta klarinetea jotzen dauz eta Edu Andererek gitarra.

Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak edo Motxoganen tailerrak.

URTAILAK 7

LEMOA

19:30ean, Jai Batzordearen urteko lehenengo batzarra udaletxean.

URTAILAK 8

AREATZA

19:00etan, Lamino Mendi Taldearen eskutik, mendian federatzeko izen emotea Udaletxeko 3. solairuan.

LEMOA

18:00etan Gaztelekuan, Europako biajearen parte hartzeako izen emotea zabalik hilaren 26ra arte. 1998 eta 1995 urteen artean jaiotako gazteentzat.

URTAILAK 9

IGORRE

Ramon Serras-en Zarautz argazki erakusketea Kultur Etxean.

20:00etan, Anje Duhalderen kontzertua Lasarte Aretan.

AREATZA

22:00etan Bixer tabernan The Sheriff Band taldearen kontzertua.

THE SHERIFF BAND

(Rock, Blues, Country, Pop)

kontzertuan



Bixer Taberna

Areatza

Urtailaren 2an OSTILARRA

ORDUA: 22:00

URTAILAK 10

IGORRE

19:00etan, Luzetu Barik Film laburren Lehiaketako sari banaketea Lasarte Aretan.

URTAILAK 11

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea, *Los Boxtrolls*. 19:30etan, zinea *Relatos Salvajes*. Lasarte Aretan.

Eizu Change azokea Kiñu Gaztetxean.

URTAILAK 12

LEMOA

Hilaren 23ra arte, Ortua eta balkoia: zure barazkiak ekoiztu eta Artisanu kremak ikastaroetan izena emoteko epea.

ZEBERIO

17:30ean, Zeberio Kantuz kantuaren entsegu 4 eta 9 urte bitartekoentzat.

URTAILAK 15

AREATZA

19:00etan, Lamino Mendi Taldearen eskutik, mendian federatzeko izen emotea. Udaletxeko 3. solairuan.

IGORRE

18:30ean, Arratiako tokiko garapen sozioekonomikorako jardunaldiak. Azaro Fundazioko Ainara Basurko egongo da. Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MASAJEAK EMOTEKO OHATILA

SALGAI

Masajeak emoteko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarik erabilitakoa. Tolesgarnia, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 11 urte. 106.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Inigo).

UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesautu zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

DANERIK

PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukaldia, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

IKASTAROA

Buzinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukerea. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara.

Animauta bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

LANGILE BILA

Umeak eskolara eroateko eta etxea garbitzeko persona euskalduna behar da. 646 600 490 (Eider, Igorre).

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baserri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago. Interesatuak deitu: Izaskun 605 728 358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun_urbaneta@hotmail.com-era.

TXISTUA GALDU DOT

Abenduaren 21ean, Lemoako eleiza inguruan txistua galdu neban. Baten batek topau ezkerre deitu 677 497 985 telefonora mesedez.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Hiru txerri txoak eta otsoa antezlanerako.*

Aritz Undurruga (Lemoa)
Joko Alai alkarte (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Anje Duhalderen kontzerturako.*

Edu Landajo (Zeanuri)
Lur Olabari (Zeanuri)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Andrazkoen izena. 2.- Bokala. Narrua. 3.- Suagaz batera. (Atz.) Urtaro bat. 4.- Pluralez, hegalaburra. 5.- Pinu. Errusiako ibaia, Siberiako mendebaldean. 6.- Aitoren alaba edo seme. 7.- Hiketa. Iridioa. 8.- Elaia. Bokala. 9.- Astegun.

GOITIK BEHERA

1.- Indar barik, ahul. Arriskuan edo larrialdian laguntza eskatzeko. 2.- Bokala. Irabazia, mozkina. 3.- Gixi falta. Erauntsi. 4.- Ernari. Karakola eta barea. 5.- Itxita, etsita. Zidarra. 6.- Barritsu. Uranioa. 7.- Nortasun Agiri Nazionala. Zergaitik.



Topau bainugelan normalean egon leitekezan zazpi gauzaren izenak.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | E | R | A | D | A | G | U | R | O |
| I | S | A | I | Z | A | R | R | O | M |
| L | P | U | N | Y | K | O | G | A | R |
| E | I | K | O | N | K | E | T | A | U |
| M | L | O | G | A | R | S | E | J | Z |
| A | U | T | O | A | N | K | R | A | I |
| D | A | T | S | O | R | U | G | T | A |
| U | S | A | T | X | U | O | S | O | B |
| Z | R | A | I | M | K | I | A | R | E |
| A | U | K | A | K | I | H | Z | R | O |
| P | L | A | T | A | A | A | R | O | A |
| O | R | E | X | I | K | L | O | X | U |
| T | A | T | A | N | K | A | E | T | A |
| X | U | G | A | N | D | I | K | B | O |
| D | O | R | T | O | L | A | N | D | I |

AKMIKO

Aitziber



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egün eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober w 630 743 543
48.140 Igorre Manuel w 661 848 793

begitu
arabiar uhale zerbait

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nagarri) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B75, B
Lehendakari Agirre 34
Tlfnoa: 94 631 31 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garante@ovokahel.net

AKITEGIA
GAV 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HUGAZTARIN
ASIGURUTAN
Sabino Arana, 3 Tlfnoa: 94 631 71 41 - Faxa: 94 631 34 41 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a Tlfnoa: 94 673 70 87
Igorre 48140 Bizkaia Tlfnoa: 609 79 40 54

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 08

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zein ordinaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unida.aa@ovokahel.net

ARKAITZ ESTIBALLES

"Zeanurin holako lasaitasun bat topau dot"

Oraindino gaztea bada be urte piloa daroaz Arkaitz Estiballesek bertsotan. Hamaika urtegaz hasi zan, Galdakaoko ikastolan ikasten ebala. Aurtengo Bizkaiko Bertso finalean bigarren postuan gelditu bada be, oso erlajauta eta inoz baino trankilen kantau ebala adierazo deutso BEGITURI. Printzipioz Zeanuriko bertso saioan ikusiko dogu hilaren 18an.

Arratiara etorri da Estiballes, Bilbon hamahiru urtez bizi ostean. Bere aita josten hasi zanari moronpila emoteko, zuztarrak Zeanuriko lurretara lotuz.

Irati Urien**Aurretik birritan Bizkaiko txapeladuna izan ostean, aurtengoan Fredigaz buruz burukora heldu eta ezin txapela jantzi.**

Balorazino bat egitekotan gustura gelditu nintzan egindako lanagaz, uste dot final nahiko txukuna egin genduala. Beti ezin da irabazi. Fredik oso momentu onak euki ebazan, eta berak jantzi eban txapela. Urte asko dira alkarregaz entrenetan dogula Fredik, Etxahunek eta hirurok orduan norberak jantzi ezean beste edozein lagunek jantzi ezkerro be poza. Egia esan egunean bertan penatxo hartzean dozu, apur bat, baina orain egun batzuetara ikusita lasaitasunez hartu dot. Ia-ia gaintetik pisu bat kendu dodaneko sentsazioa daukat, beti da ardura bat txapeladuna izatea eta.

Bestela, zelan ikusi dozu txapelketea?

Osasunetik kili-kolo ibili naz gorabehera batzuk eta ez dot askorik jarraitu, egia esan saio bakar bat be ez dot ikusi. Sekula be ez jata pasau baina atzeneko finalerdian kantetea tokau jata, orduan oso berandu sartu naz txapelketan. Finala bera nahiko final polita ikusi

neban, umoretik asko egon zan eta uste dot entzuleak hori eskertu eginen dauala.

Askok galdetuko eutsun zelan etorri zaran Arratiara biziten. Igarri dozu Bilbotik Zeanurirako aldaketea?

Orain dala hiru urte nonok galde-tu izan baeustan hori neuk be ez neban erantzunik eukiko, orain dala urte bete be ez seguruenik baina bizimoduak holakoxe bueltak emoten dauz. Igaz gure aita zana baserria konponduten ibili zan etorkizun baten berarentzako. Istripuan hil zan eta bueno, pena handia emoten euskun holan itxia aitak hasitako behar bat. Familian berba egin genduan horren inguruan eta umeak be ointxe geunkazan adin egoki baten etorteko. Holantxe ebatzi genduan etortea. Aldaketari jagokenean jente askok galdetuten deusta. Kanbioa bada, eta bizimodu desbardin bi dira baina ez deusta holako esfortzu handirik suposatu.

Eskualdean Zeanurikoa eta Igorrekoa dira bertso saio potenteenak. Ze erantzun dauka bertsoak gurean?

Uste dot igaz San Josetako apur bat kili-kolo joan zala. Bere garaiak Hitzetik Hortzera programa pun-

turik gorenenean egoanean sortu zan saio bat da San Josetako. Orduan bertsolaritzeak boom izugarria bizi eban eta Arratian bertan bertsozaletasuna asko igon zan zentzu horretan, eta klaro, orduko zifretara heltzea gatxa da. Saio handi jagokienez horreekaz biekaz nahikoa dala pentsetan dot, beste saio mota batzuk be bultzatuko neukez. Herrian bertan egiten diranak herriari bizitasuna emoten deustie. Adibidez orain dala gitxi Areatzan esaera zaharren lehiaketa poteo bat egin genduan. Areatza ez da oso bertsozalea izan egundo be, baina girotxoa sortuten dabiz. Uste dot formatu horreetatik bultzatu behar dala gehiago, askoz hurrekoagoa da eta. Arantzazun egin genduan bertso afarian be Fredi eta biok egon ginan eta giro izugarria sortu zan. Gero Arratian bertsozaletasuna egon badago, eta Zeanurin bereziki handia. Jakin dakit, izan be Galdakaon urte asko daroadaz gabonetan bertso saio bat antolatuten eta beti ipinten doguz Arratian kartelak, bertatik jentea etorten dalako.

Ogibidez Bizkaiko Bertsozale Elkarteko irakaslea zara. Gaur egungo Euskal Herriko gazteen artean badauka lekurik bertsoak?

Bai, duda barik. Bertsoak esparru asko eta desbardinak daukaz. Bertsoa ez da txapelketan islatzen dan hori bakarrik. Ikasleari beti esaten deustet ni be holan hasi nintzala, jolas moduan hartu behar dabela bertsoa, ondo pasau behar dabela eta sano aukera ona dala hizkuntzeagaz olgetatik aparte Euskal Herriko beste antzeko afizino edo kezkek daukiezan gazte batzuk ezetuteko. Oso lagun sare harreman zabala egiten da Euskal Herrian zehar, eta hori etorkizun batera begira sano polita da.

Badago erreleborik?

Esango neuke atzetik badatorrela taldetxo bat: Miren Amuriza, Jone Uribe eta bere neba Imanol Uribe, Xabat Galletebeitia aurtengo finalera heldu da, orain dala lau urte Peio Ormazabal nire ikaslea be heldu zan...

"Bikotekidea oholta bardi-nean, zer sentidu zenduan bere izena esakeran eta berau negarrez ikustean?" galderea bota jakon aurreko alean zure**bikotekideari. Eta zuk? Zer sentidu zenduan?**

2000. urtetik final guztietan egon naz eta Zuriñek be final asko aurkeztu dauz. Ohituta gagoz. Ez dau gai jartzaile egiten ni kantetan nagoanean baina ni kantetan nagoanean protokoloa egitea toketan jako, orduan protokoloa egiterakoan berari toketan jakon izena esatea. Momentu horretan poza, baina poza norberarena. Ez dozu pentsetan bikotea hor dagoa, atzenean beharrean gagoz. Bakotxak bere funtzioa dauka hor eta behin hori guztia amaituten danean, hortik bajatuten garanean eta lehenengo garagardoa edaten hasten garanean orduan egiten dogu berba. Egia be bada gure etxean bertsoetaz ez dala berba askorik egiten. Beste interes batzuk, beste afizino batzuk daukaguz eta nik, egia esan, gurago dot holan. Etxean ume bigaz beste gauza batzuk dagoz berba egiteko, ia biharko ze erosketa behar doguzan eta abar. Deseetan egoten gara umeak lokartuteko biok tarte bat eukiteko geure artean berba egiteko. Orduan gaubean daukagun ordu horretan ez gara bertsotan hasten kar, kar, kar.

Seguruenik Bizkaiko finalean barriro ez dogula ikusiko esan euskun Zuriñek. Espero dogu zu baietz!

Izan leiteke txapelketa atzenekoa izatea. Zeanurira biziten etortek badauka bere arrazoa, Zeanurin

holako lasaitasun bat topau dot. Nire burua zaindu beharra be ikusten dot, beti besteak zainduten ibili ostean apurtxo bat neure osasuna zaintzekoa. Txapelketea apurtxo bat kanpotik ikusteko gogoia be badaukat aspalditik, distantzia batetik disfrutetako. Orduan ez dot ziurtatuko, baina aspaldian bueltaka darabilten asuntua da. Bertsolarien artean be askotan komentetan dogu Bizkaiko eritimoa oso-oso itogarria dala. Iratxe Ibarak be aurtengo txapelketea hau izango zala, eta bere logikea dauka. Gu behintzat, finaleran ibili garanok, lau urterik behin gagoz txapelketa barik.

Zein da Arkaitzen etorkizuna?

Zeanurin ikusten dot, lasai. Eta noizbeinka geitzean deustenean bertsotara joaten. Jenteak erreleborik ikusten dau, pentsetan dau bertsolaria izatea gauza erreza dala. Atzenengo urteetan, urtean ehun saio inguruko bueltan ibili naz, atera kontuak. Horrek oso astegoi gitxi librau dodazala esan gura dau. Bere alde gozoa dauka jenteagaz zagozalako eta gustetan jatzuna egiten zabizelako, baina gazia be badauka eta da zuretzako ez daukazula astirik. Guk astebarruan beste leku batzuetan egiten dogu behar, barikua helduten da, eta astelehenagaz batuten jaku astegoi-na. Geituten badeuste gatx egiten jata ezetz esatea, ez dakigu ezetz esaten eta, baina apurtxo bat gus-tura bajatuko neuke pistoi hori.

begitu
arratia ubide zeberio
www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115